



## INFORMAZIO ORRIA

# Ondasun higiezinaren dohaintza

### Nork aurkeztu behar du? (2017-12-30etik aurrera sortutako zerga egitateak)

1. Ohiko bizilekua Espainian duen **dohaintza-hartzaileak**, baldin eta dohaintzan jasotako higiezina Gipuzkoan badago.
2. Ohiko bizilekua Gipuzkoan duen **dohaintza-hartzaileak**, baldin eta dohaintzan jasotako higiezina atzerrian badago.

### Zenbat egun daukazu aitorpena aurkezteko?

30 lanegun, dohaintza egin ondorengo egunetik aurrera.

### Zein pauso egin behar dira?

#### 1. Bildu itzazu ondoko agiriak:

❖ **671 eredia**, hemen eskura dezakezuna:

- baimendutako estankoetan.
- interneten: <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ogasuna/zergak/eredua/671>

Helbide horretan zerga honi buruzko informazio guztia duzu (araudia, eskala, etab.)

- ❖ **Dohaintza adierazten duen dokumentuaren jatorrizko alea eta kopia** (higiezinaren balioa jarri behar du, bai eta ordainagiriaren zenbakia eta balio katastrala ere, dohaintzan emandako higiezinaren kontribuzio-ordainagirian ageri direnak).
- ❖ **Ondasun higiezina eman eta jasotzen dutenen Nortasun Agiriaren fotokopia** (*ez da beharrezkoa notarioaren eskrituran agertzen denean*)
- ❖ **Ahaidetasunaren justifikazio dokumentala** (hala nola, famili liburuaren fotokopia). ). Ahaidetasun edo harremana 3. Taldekoa bada (lehengusu, koinatu/a, arrotza..), ez da beharrezkoa agiri hori aurkeztea.
- ❖ **Salbuespen edota murrizpenen bat aplikatuz gero**, araudiak propio ezartzen dituen baldintzak bete izanaren **frogagiriak** aurkeztu beharko dira.

#### 2. Bete eredia jarraian adierazten den eran:

- ❖ **Subjektu pasiboa:** ondasun higiezina jasotzen duenaren datuak.
- ❖ **Eskualdatzailea:** ondasun higiezina ematen duenaren datuak.
- ❖ **Ondasun eta eskubideen benetako balioa:** dohaintzan ematen den higiezinaren balioa.
- ❖ **Ordaindu beharreko kuota:** 3/1990 Foru Arauan ezarritako eskalaren arabera kalkulatu da. Araudia eta informazio guztia zergen webgunean duzu.
- ❖ **Sinatu aitorpena.**

#### 3. E-maila ordaintzekoa bada, eraman 671 eredia banketxe edo aurrezki kutxa batera eta egin bertan ordainketa

#### 4. Ekarki agiri guztiak gure bulegoetara